

Oiartzungo udalerrian euskara sustatzeko jardueretarako dirulaguntzak arautzeko oinarri bereziak

1. ARTIKULUA.- Xedea

Oinarri hauen xedea da Oiartzungo udalerrian euskara sustatzeko jardueretarako dirulaguntzak esleitzeko oinarriak arautzea.

Dirulaguntza horiek ondoren zehazten direnak izango dira:

- Euskara ikasteko eta hobetzeko dirulaguntzak.
- Udako Euskal Unibertsitateak (UEU) antolatutako ikastaroak egiteko dirulaguntzak oiartzungo ikasle eta langabetuentzat.
- Oiartzungo Udalak arlo sozioekonomikoan euskararen erabilera sustatzeko dirulaguntzak.
- Udalerriaz gaindiko eremuetan euskara sustatzen dabiltzan erakundeentzako dirulaguntzak.

Dirulaguntza hauen oinarriak I, II, III eta IV eranskinen bitartez arautzen dira, hurrenez hurren.

I. ERANSKINA: 2019-2020 ikasturtean euskara ikasteko eta hobetzeko dirulaguntzen oinarriak

2. ARTIKULUA.- Xedea

Ebazpen honen xedea da Oiartzungo Udalaren dirulaguntzen oinarri arautzaileak ezartzea, onuradunen lehiarik gabeko prozeduraren bidez, 2019-2020 ikasturtean zehar euskara ikasketak egingo dituzten ikasle Oiartzuarrei dirulaguntzak emateko.

Dirulaguntza hauetan kontuan izango da Oiartzungo Udalaren dirulaguntzak arautzen dituen Ordenantza, 2019-2021rako dirulaguntzen Plan Estrategikoa, eta 2005eko Berdintasun Legeak 3. tituluan jasotzen duena. Honen arabera, 16, 18.4, 23. eta 24.2 artikuluetako printzipio orokorrak Euskal Autonomia Erkidegoko herri-aginte guztiei aplikatuko zaizkie baita erakunde pribatuei ere, baldin eta Erkidegoko herri aginteetako batekin kontratuak edo lankidetzak-hitzarmenak sinatzen badituzte, edo herri-aginte horiek emandako laguntzen edo dirulaguntzen onuradunak badira.

Beraz, pertsona edo elkarte onuradunak aplikatzekoa zaion indarreko araudi guztia errespetatu beharko du; eta bereziki Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legea.

3. ARTIKULUA.- Onuradunak

1. Baldintza orokorrak:

Onuradunek, dirulaguntza jasotzeko, baldintza orokor hauek bete behar dituzte:

- Oiartzunen erroldatuta egotea ikastaroak irauten duen bitartean. Kasu hauetan izan ezik: Oiartzungo dendetako langileak, Oiartzungo zerbitzu enpresetako langileak, Oiartzunen jarduten duten eta euskara normalizatzeko plana duten edota Oiartzungo Udalarekin hitzarmena duten enpresetako langileak, Oiartzunen jarduten duten elkarteetako kideak.
- Hasitako ikastaroa amaitzea. Amaitu ez den kasuetan, izandako asistentzia agiriaren eta aprobetxamenduaren txostenaren arabera dirulaguntza proportzionala emango da.
- Eskatutako ikastarorako gain-finantzaketa eragin dezakeen beste dirulaguntzarik jaso ez izana. Horretarako eskatu diren eta onartu zaizkion dirulaguntzei buruzko zinpeko aitortpena eskatuko da. Bestelako agiri argigarriak ere eskatu ahal izango dira.
- Asistentziak gutxienez %85ekoa izan beharko du. Gutxieneko asistentziatik beherakoak onartzeko, eskaera berariaz egin beharko du ikasleak. Dagokion

organuak erabakiko du hutsegiteak justifikatuak diren ala ez, arrazoiaren ezinbestekotasuna kontuan hartuta: gaixotasuna, amatasuna, espetxeratzea...

- Laguntza hauek jaso nahi dituen herritarrak Oiartzungo euskaltegi homologatu batean izena eman behar du. Oiartzungo eskaintzaren arabera ikasleak eskatutako urrats eta ordutegian talderik sortu ez bada, beste herriren bateko Euskaltegi homologatu batean aritu izana onartuko da dirulaguntza emateko orduan.

2. Baldintza bereziak

Horrez gain, dirulaguntza berezi gehigarria jaso nahi bada honako baldintzetako bat bete beharko da:

- Hezkuntza arautuko ikasketaren batean aritzea.
- Langabe edo pentsioduna izatea.
- Famili transmisioeko programaren bidez, 12 urte bitarteko haurren guraso, hezitzaile eta zaintzaileek, pediatra eta gainerako profesionalek eta haurdun dauden emakumeek eta hauen bikoteek jasoko dute dirulaguntza.
- Oiartzungo elkarteetako zuzendari, monitore edo idazkari izatea. Beharrezkoa izango da Elkarteak Oiartzunen egotea edo iraunkorki Oiartzunen jardutea.
- Oiartzungo dendetako langile izatea. Enpresa Oiartzunen egotea edo iraunkorki Oiartzunen jardutea beharrezkoa izango da.
- Oiartzungo zerbitzu-enpresetako (banku, aseguru-etxe,...) langile izatea. Enpresa Oiartzunen egotea edo iraunkorki Oiartzunen jardutea beharrezkoa izango da.
- Lan Munduko euskararen normalizaziorako plana duten enpresetako langile izatea edota Oiartzungo Udalarekin hitzarmena duen enpresa batetako langile izatea. Beharrezkoa izango da enpresa Oiartzunen egotea edo iraunkorki Oiartzunen jardutea.

4. ARTIKULUA.- Diruz lagundu daitezkeen ikasketak

Deialdi honen bidez 2019-2020 ikasturtean egindako euskara ikasteko eta hobetzeko ikastaroak diruz lagunduko dira.

5. ARTIKULUA.- Dirulaguntzaren zenbatekoa

Oiartzungo Udalak euskara ikasketak egiteko lau dirulaguntza mota finkatu ditu:

- 1) Dirulaguntza orokorra
- 2) Dirulaguntza berezia
- 3) A1, A2, B1 eta B2 mailetarako dirulaguntza.
- 4) Barnetegietako egoitza gastuetarako dirulaguntza.

1. Dirulaguntza orokorra

Dirulaguntza orokorra, 3. artikuluko baldintza orokorrak betetzen dituzten ikasleek eskatu ahal izango dute eta Oiartzungo Udalak ikastaroaren kostuaren %50a hartuko du bere gain. Dirulaguntza hau eskaera egin eta hilabetera ebatziko da.

2. Dirulaguntza berezia

Dirulaguntza berezia, 3. artikuluko baldintza bereziak betetzen dituzten ikasleek eskatu ahal izango dituzte. Orokorrak gain, baldintza horiek ziurtatzen dituzten C1 eta C2 mailatako ikasleek, ikasturte amaieran, asistentzia eta aprobetxamenduaren justifikazioa aurkeztuta, honako dirulaguntza gehigarria jaso ahal izango dute:

Baldintza berezia duen ikaslea	Dirulaguntza gehigarria
Hezkuntza arautuko ikasketak egiten	%20
Langabetua	%5 (2 eta 4 artean langabezia)
	%10 (4 eta sei hilabete artean langabezia)
	%20 (6 hilabete baino gehiago langabezia)
Pentsioduna	%20
Famili transmisioa	%20
Oiartzungo elkarteetako kideak	%20
Oiartzungo dendetako langileak	%20
Oiartzungo zerbitzu-enpresetako langileak	%20
Lan Munduko euskararen normalizaziorako plana duten enpresetako langileak edota Oiartzungo Udalarekin hitzarmena duen enpresa batetako langileak	%20

Gehienezko dirulaguntza ikastaroaren kostuaren %70koa izango da eta baldintza berezi bakarrarengatik eskatu ahal izango da dirulaguntza.

3. A1, A2, B1 eta B2 ikastaroak %100ean laguntzea.

A1, A2, B1 eta B2 mailatan matrikulatu diren ikasleek 1 motako dirulaguntza jasotzeaz gain (dirulaguntza orokorra= matrikularen %50a), ikastaroaren kostuaren gainerako %50a jasoko dute ikasturte amaieran, asistentzia eta aprobetxamenduaren justifikazioa aurkeztuta.

4. Barnetegietako egoitza gastuetarako dirulaguntza.

Barnetegiaren kasuan, egoitza ordaintzeko gastuari dagokionez, %20ko laguntza emango da gehienez.

6. ARTIKULUA.- Aurrekontua

Dirulaguntza hauek emateko, guztira, 28.000,00 euroko izendapena eginda dago, Oiartzungo Udalak 2019 ekitaldirako indarrean duen aurrekontuko 07 01 480 335 00 01 2019 zenbakidun partidaren kontura.

Oinarrietako baldintzak betetzen dituzten eskabide guztiei dirulaguntza emateko nahikoa aurrekontu-krediturik ez badago, hainbanaketa bidez esleituko da dirulaguntza eskabide guztien artean, inongo lehentasun-ordenarik gabe.

Baimendutako gastua handitu edo murriztu ahal izango du aldaketaren zenbatekoaren arabera eskumena esleituta duen organoak. Horrek ez du beste deialdi bat egitea ekarriko.

7. ARTIKULUA.- Eskaerak aurkezteko lekua eta dokumentazioa

Eskaerak Udaleko Erregistro Nagusian aurkeztu behar dira Udalak horretarako jarriko dituen eskaera orrietan. Halaber, urriaren 1eko Administrazio Publikoen Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 16.4 artikulua aipatzen dituen lekuetan ere aurkeztu ahal izango dira.

Dirulaguntzaren eskaera egiteko, ikasle guztiek, dokumentazio hau aurkeztu beharko dute:

- a) Eskabide-inprimakia, behar bezala beteta.
- b) Ikaslearen Nortasun Agiriaren fotokopia. Ikasle adingabeen kasuan gurasoen Nortasun Agiriaren fotokopia.
- c) Errolda ziurtagiria (dagokien kasuan).
- d) Gizarte Segurantzarekiko betebeharretan egunera dagoela edo Ogasun Arloko betebeharrak betetzen dituela adierazten duen erantzukizuneko aitortpena.
- e) Eskatutako ikastaroko gain-finantzaketa eragin dezakeen dirulaguntzarik jaso ez izanaren zinpeko aitortpena.

- f) 5. artikuluan aipatzen den dirulaguntza berezia jasotzeko aukera duten ikasleen kasuan, honako agiri hauek ere aurkeztu beharko dituzte:
- a) Hezkuntza arautuko ikaleek:
 - Ikastetxeko matrikularen agiria (ordainagiria edo matrikula-agiriaren kopia).
 - b) Langabetuak
 - Gizarte Segurantzak ematen duen lan-bizitza ziurtagiria. Ziurtagiri honek ikastaroak iraun duen bitartean langabezia zenbat hilabetez egon den egiaztatu beharko du.
 - c) Pentsiodunak
 - Egoera hori egiaztatzen duen agiria.
 - d) Familia transmisioa
 - Haurraren datuak azaltzen dituen familia liburuaren fotokopia.
 - Familiaren ziurtagiria (zaintzaileek).
 - Haurdun dauden emakumeek eta haien bikoteek medikuaren ziurtagiria (beharrezkoa denetan, zinpeko aitortpena eskatu ahal izango da).
 - Gutxienez sei hilabetez lanean ari izana egiaztatzen duen Gizarte Segurantzaren lan-bizitza ziurtagiria (pediatra eta gainerako profesionalek).
 - e) Oartzunen kokatutako denda eta zerbitzu enpresetako langileak
 - Gutxienez sei hilabetez lanean aritu izana egiaztatzen duen ziurtagiria.
 - Enpresa Oartzunen kokatua dagoela egiaztatzen duen ziurtagiria. Hala badagokio, iraunkorki Oartzunen jarduten duela adierazten duen ziurtagiria.
 - f) Lan Munduko euskararen normalizaziorako plana duten enpresetako langileak
 - Gutxienez sei hilabetez lanean aritu izana egiaztatzen duen ziurtagiria.
 - Enpresa Oartzunen kokatua dagoela egiaztatzen duen ziurtagiria. Hala badagokio, iraunkorki Oartzunen jarduten duela adierazten duen ziurtagiria.

- Enpresak Euskara normalizatzeko plana martxan duela adierazten duen agiria.
- Oiartzungo Udalarekin hitzarmena duten enpresen kasuan, udalak egiaztatuko du hitzarmena indarrean dela.

g) Elkarateak

- Elkaratearen egiaztatzea, eskatzaileak bertan zein eginkizun duen adierazten duena.
- Elkaratea Oiartzunen kokatua dagoela egiaztatzen duen ziurtagiria. Hala badagokio, iraunkorki Oiartzunen jarduten duela adierazten duen ziurtagiria.

8. ARTIKULUA.- Epeak

Eskaerak, dirulaguntza deialdi hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren, epe honen barruan egin ahal izango dira:

a) 2019-20 ikasturteko neguko ikastaroak:

○ Ikasturte hasieran izena emandakoek:

- 2019ko urriaren 1etik 31ra eskaera egitea.
- 2020ko ekainaren 22tik uztailearen 6ra, asistentziaren justifikazioa aurkeztea.

○ Ikasturtea hasita izena emandakoek: 2020ko ekainaren 22tik uztailearen 6ra. Eskaera eta justifikazioa.

b) 2019-20 ikasturteko udako ikastaroak: 2020ko urriaren 1etik 19ra. Eskaera eta justifikazioa.

Aurkeztutako dokumentazioa osatu gabe badago edo oinarrietako baldintzaren bat betetzen ez badu, hamar egun balioduneko epea emango zaio interesdunari akatsak zuzendu ditzan edo dagokion dokumentazioa gehitu dezan, Oiartzungo Udalaren dirulaguntzak emateko Ordenantza Orokorrak 20. artikuluan aipatzen duena jarraituz.

9. ARTIKULUA.- Beste dirulaguntzekin bateragarritasuna

Araudi honetako dirulaguntzak bateragarriak izango dira erakunde publiko edo pribatuek xede bererako eman ditzaketen bestelako dirulaguntzekin. Bateragarritasunari buruz sortu

daitezkeen zalantzak argitzeko, Oiartzungo Udalaren dirulaguntzak emateko Ordenantza Orokorrak 14. artikuluan finkatzen dituen irizpideak jarraituko dira.

10. ARTIKULUA.- Prozedura

Dirulaguntzak emateko prozedurak, Oiartzungo Udalaren dirulaguntzak arautzen dituen Ordenantzak 22. eta 23. artikuluan zehazten diren pausoak jarraituko ditu, bertan azaltzen diren baldintzekin:

- Euskara arloko teknikariak dirulaguntza eskariak ebaluatuko ditu.
- Txostena egin eta Euskara Batzordera eramango du, honek txostena kontuan hartuta, bere iritzia eman eta behin-behineko proposamena luza dezan.
- Tokiko Gobernu Batzarrak behin-behineko proposamena onartuko du, hamar eguneko epea eskainiz interesatuei alegazioak aurkezteko. Prozeduran pertsona interesdunek argudiatutakoak beste egintzarik, alegaziorik edo frogarik agertzen ez denean, entzunaldi-izapide hori bazter utzi ahal izango da. Kasu horretan, ebazpen-proposamena behin betikoa izango da.
- Aurkeztutako alegazioak (baleude) aztertu ondoren, behin betiko ebazpen-proposamena egingo da. Proposamen horrek dirulaguntzaren emakidarako proposatzen dituen eskatzaileen zerrenda eta zenbatekoa adierazi beharko ditu, bere ebaluazioa eta hori egiteko erabilitako balorazio-irizpideak adierazita, eta baita zer eskaera ez dituen aintzat hartu eta zer arrazoitan oinarritu den ere.

Www.oiartzun.eus web orrian behin-behineko proposamenaren eta behin betiko ebazpenaren berri emango da.

Behin betiko ebazpena egiteko eta jakinarazteko gehieneko epea sei hilabetekoa da, dagokion deialdian zehazten den epetik kontatzen hasita. Epe hori ebazpena espreski jakinarazi gabe igarotakoan, pertsona edo erakunde eskatzaileek ezetsizat jo ahal izango dituzte beren dirulaguntzarako eskaerak.

Dirulaguntza ordaintzea: Behin betiko dirulaguntzaren jakinarazpena egin dela jakinarazi ondoren, ordainketa tramitatuko da. Eta kontuan izango dira, halaber, Oiartzungo Udalaren dirulaguntzei buruko Ordenantzaren VII. Tituluan aipatzen diren aspektu guztiak.

11. ARTIKULUA.- Dirulaguntza ordaintzea

Behin betiko dirulaguntzaren jakinarazpena egin ondoren, dirulaguntzaren lehen zatiaren ordainketa tramitatuko da, matrikularen kostuaren % 50arena, alegia. Eta kontuan izango dira, halaber, Ordenantza Orokorraren VII. tituluan aipatzen diren aspektu guztiak.

Eskatzaileak lehen zati honen kobrantza-eskubidearen lagapena edo endosoa egin ahal izango du, Oiartzungo Udalak dirulaguntza zuzenean dagokion euskaltegiari ordaintzeko, Oiartzungo Udalaren dirulaguntzen Ordenantza Orokorrak 30. artikuluan ezartzen

duenaren arabera. Agiri hau behin dirulaguntzen ebazpena argitaratu ondoren aurkeztu beharko da.

Dirulaguntza berezia jasotzeko baldintzak betetzen dituzten ikasleek eta A1, A2, B1 eta B2 mailatan aritzeagatik kostuaren %100 jasotzeko eskubidea duten ikasleek, bigarren zatia ikasturtea amaituta jasoko dute, dagokion justifikazioa aurkeztu ondoren, hala badagokie.

Ikasturtea hasita izena emandako ikasleek eta udako ikastaroetan parte hartu duten ikasleek, eskaera eta justifikazioa batera dagokien epean aurkeztu ondoren, jasoko dute dirulaguntza ordainketa bakarrean.

12. ARTIKULUA.- Justifikaziorako dokumentuak:

8 artikuluan zehaztutako epeetan, ikasleek dirulaguntza justifikatzeko ondorengo agiriak aurkeztuko dituzte:

- a) Matrikularen ordainagiria/k.
- b) Euskaltegiaren asistentzia ziurtagiria.

13. ARTIKULUA.- Asistentzia ez betetzearen ondorioa:

Ikasturte hasieran beka eskatu bai, baina gutxieneko asistentzia bete ez dutenek, ezingo dute datozen 4 ikasturteetan bekarik eskatu.

Udalak aurreratutako diru kopurua itzuliz gero, 4 urtetarako ezarritako beka eskatzeko debekua indargabetuko da.

Udalak gehienez bi alditan bidaliko dio ikasleari, diru itzulketa egiteko epearen jakinarazpena.

Diru-itzulketa irailaren 30a baino lehen egin beharko da.

14. ARTIKULUA.- Onuradunen betebeharrak

Deialdi honetako dirulaguntzak jaso dituztenek, Oiartzungo Udalaren dirulaguntzak arautzen dituen Ordenantzaren 6. artikulua ezartzen dituen betebeharrak bete beharko dituzte. Besteak beste, ondorengo hauek:

- a) Organo emaileak egin beharreko egiaztapen-jardunen mende jarri eta lagundu, indarrean den araudiaren baldintzetan, eta baita kontrol-organoek egin ditzaketen finantzako beste egiaztapen eta kontrol-jardunen mende ere, aurreko jardunetan eskatzen zaion informazio guztia ekarrita.
- b) Organo emaileari, hala badagokio, edozein Administrazio edo erakunde publiko zein pribatutatik, nazional zein nazioartekotatik diruz lagundutako jarduera

finantzatzen duten beste dirulaguntzak, laguntzak, diru-sarrerak edo baliabideak lortu izana jakinarazi.

- c) Dirulaguntzaren emakidarako kontuan izan den edozein gertaera objektibo zein subjektiboren aldaketa jakinarazi.
- d) Emakidarako ebazpen-proposamena egin aurretik zerga-betebeharrak, Gizarte Segurantzakoak eta Oiartzungo Udalarenak egunean dituela egiaztatu.

Horretarako, eskatzaileek idatzizko aitorpenean adieraziko dute Gizarte Segurantzarekiko betebeharretan egunera dagoela edo Ogasun Arloko betebeharrak betetzen dituela.

Bestalde, udal betebeharrei dagokienez, udalak berak ofizioz, dagozkion ziurtagiriak eskura ditzake.

15. ARTIKULUA.- Araudi osagarria

Deialdi honek ezartzen ez duenari dagokionez, aintzat hartuko da Oiartzungo Udalaren dirulaguntzak arautzen dituen Ordenantzak ezartzen duena eta Herri Administrazioetako dirulaguntzak arautzen dituen 38/2003 Legearen xedapenak.

II. ERANSKINA: 2019an UDAKO EUSKAL UNIBERTSITATEAK (UEU) ANTOLATUTAKO IKASTAROAK EGITEKO DIRULAGUNTZAK OIARTZUNGO IKASLE ETA LANGABETUENTZAT

16. ARTIKULUA.- Xedea.

Ebazpen honen xedea hauex da: Oiartzungo Udalak Udako Euskal Unibertsitateak urtero antolatzen dituen ikastaroetan parte hartu nahi duten herritarrei matrikula ordaintzen laguntzeko dirulaguntza emateko oinarri arautzaileak ezartzea.

Dirulaguntza hauetan kontuan izango da Oiartzungo Udalaren dirulaguntzak arautzen dituen Ordenantza, 2019-2021rako dirulaguntzen Plan Estrategikoa, eta 2005eko Berdintasun Legeak 3. tituluan jasotzen duena. Honen arabera, 16, 18.4, 23. eta 24.2 artikuluetako printzipio orokorrak Euskal Autonomia Erkidegoko herri-aginte guztiei aplikatuko zaizkie baita erakunde pribatuei ere, baldin eta Erkidegoko herri aginteetako batekin kontratuak edo lankidetzak hitzarmenak sinatzen badituzte, edo herri-aginte horiek emandako laguntzen edo dirulaguntzen onuradunak badira.

Beraz, pertsona edo elkarte onuradunak aplikatzekoa zaion indarreko araudi guztia errespetatu beharko du; eta bereziki Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legea.

17. ARTIKULUA.- Onuradunak eta parte-hartze baldintzak.

Dirulaguntza hau eskatzeko aukera izan dezakete Udako Euskal Unibertsitateak urtero antolatzen dituen ikastaroetan parte hartu nahi duten Oiartzungo ikasle eta langabetuek, Oiartzungo Udalaren dirulaguntzak emateko Ordenantza Orokorrak ezartzen duen moduan.

Dirulaguntza deialdi honetan parte hartzeko, ezinbestekoa izango da:

- Oiartzunen erroldatua egotea
- Ikasle edota langabetu izatea
- %100eko asistentzia izatea diruz lagunduko den ikastaroan

Ezingo dute dirulaguntzarik jaso deialdi honen bidez bere izaera eta helburuak direla eta, udalaren beste arlo edo erakunde autonomo batzuen, beste programa baten edo batzuen bidez bideratu behar direnak. Dena den, dagokion erakunde edo udal arloetara bideratuko da eskaera, eta horren berri emango zaio interesatuari.

18. ARTIKULUA.- Dirulaguntzaren kontzeptuak eta irizpideak. Zenbatekoa.

Ikasle eta langabetuei matrikula eta egoitza gastuen %50a ordainduko die Udalak.

Dirulaguntza hauek emateko, guztira, 300,00 euroko izendapena eginda dago, Oiartzungo Udalak 2019 ekitaldirako indarrean duen aurrekontuko 1 0701.481.335.00.06 2019 (3823) DIRULAGUNTZA: UEU-KO IKASLEEI zenbakidun partidaren kontura.

Baimendutako gastua handitu edo murriztu ahal izango du aldaketaren zenbatekoaren arabera eskumena esleituta duen organoak. Horrek ez du beste deialdi bat egitea ekarriko.

Oinarri hauetan araututako dirulaguntzen zenbatekoak ezin du inola ere gainditu diruz lagundutako jardueraren kostua, ez berak bakarrik, ez beste dirulaguntza, bestelako laguntza, sarrera edo baliabide batzuekin batera.

Dirulaguntza emateko kontuan hartu diren baldintzetan edozein aldaketa gertatuz gero, eta nolana ere, oinarri hauetan baimendutako kasuez kanpo dirulaguntza hauekin batera laguntzak jasoz gero, gerta daiteke dirulaguntza emateari buruzko ebazpena aldatzea.

19. ARTIKULUA.- Eskaerak aurkezteko lekua eta dokumentazioa

Eskaerak Udaleko Erregistro Nagusian aurkeztu behar dira Udalak horretarako jarriko dituen eskaera orrietan. Halaber, urriaren 1eko Administrazio Publikoen Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 16.4 artikulua aipatzen dituen leketan ere aurkeztu ahal izango dira.

Dirulaguntzaren eskaera egiteko, dokumentazio hau aurkeztu beharko dute:

- Eskabide orria, behar bezala beteta.
- Eskatzailearen NAREN fotokopia.
- Langabetu edo ikasle denaren ziurtagiria.
- Errolda ziurtagiria.
- Diruz lagunduko den ikastaroaren matrikularen ordainagiria.
- UEUK egindako asistentziaren ziurtagiria.
- Eskaera egiten duen interesatuak kontu korrante bat ireki duela egiaztatzen duen banketxearen edo aurrezki kutxaren ziurtagiria.
- Zinpeko aitortpena, Gizarte segurantzaren betebeharren, zerga betebeharren eta beste dirulaguntzen ingurukoa.

20. ARTIKULUA.- Akatsak zuzentzea eta dokumentazio osagarria aurkeztea

Eskaerak edo horrekin batera doan dokumentazioak ez baditu identifikazio datuak biltzen, akatsen bat badu edo zerbait falta bada, eskatzaileari eskatuko zaio 38/2003 dirulaguntzak arautzen dituen Lege Orokorrak eta Udal Ordenantza Orokorrak ezarritakoari jarraiki, hamar eguneko epean akats horiek zuzentzeko; eta adieraziko zaio ezen, hori egingo ez balu, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela, aipatu legearen 23. artikuluan aurreikusitako moduan.

21. ARTIKULUA.- Epeak

Eskaerak, diru-laguntza deialdi hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren egin ahal izango dira: 2019ko abenduaren 31 arte.

Eskaerak Oiartzungo Udaleko erregistroko dataren arabera eta iritsi ahala aztertu eta ebatziko dira partidaren kreditua agortu bitartean. Dirulaguntza ebatzeko epea gehienez ere eskaera egin denetik sei hilabetekoa izango da. Erantzunik jaso ezean, isiltasuna ezezkua izango da.

Aurkeztutako dokumentazioa osatu gabe badago edo oinarrietako baldintzaren bat betetzen ez badu, hamar egun baliouduneko epea emango zaio interesdunari akatsak zuzendu ditzan edo dagokion dokumentazioa gehitu dezan, Oiartzungo Udalaren dirulaguntzak emateko Ordenantza orokorrak 20. artikuluan aipatzen duena jarraituz.

22. ARTIKULUA.- Beste dirulaguntzekin bateragarritasuna

Araudi honetako dirulaguntzak bateragarriak izango dira erakunde publiko edo pribatuek xede bererako eman ditzaketen bestelako dirulaguntzekin. Bateragarritasunari buruz sortu daitezkeen zalantzak argitzeko, Oiartzungo Udalaren dirulaguntzak emateko Ordenantza Orokorrak 14. artikuluan finkatzen dituen irizpideak jarraituko dira.

23. ARTIKULUA.- Emateko prozedura

Dirulaguntzak emateko prozedurak, Oiartzungo Udalaren dirulaguntzak arautzen dituen Ordenantzak IV. Tituluan (22-23 artikulua) zehazten diren pausoak jarraituko ditu, bertan azaltzen diren baldintzekin:

- Euskara arloko teknikariak dirulaguntza eskariak ebaluatuko ditu.
- Txostena egin eta Euskara Batzordera eramango du, honek txostena kontuan hartuta, bere iritzia eman eta behin-behineko proposamena luza dezan.
- Alkateak Dekretuz behin-behineko proposamena onartuko du, hamar eguneko epea eskainiz interesatuei alegazioak aurkezteko. Prozeduran pertsona interesdunek argudiatutakoak beste egintzarik, alegaziorik edo frogarik agertzen ez denean, entzunaldi-izapide hori bazter utzi ahal izango da. Kasu horretan, ebazpen-proposamena behin betikoa izango da.
- Aurkeztutako alegazioak (baleude) aztertu ondoren, behin betiko ebazpen-proposamena egingo da. Proposamen horrek dirulaguntzaren emakidarako proposatzen dituen eskatzaileen zerrenda eta zenbatekoa adierazi beharko ditu, bere ebaluazioa eta hori egiteko erabilitako balorazio-irizpideak adierazita, eta baita zer eskaera ez dituen aintzat hartu eta zer arrazoitan oinarritu den ere.

Www.oiartzun.eus web orrian behin-behineko proposamenaren eta behin betiko ebazpenaren berri emango da.

Behin betiko ebazpena egiteko eta jakinarazteko gehienezko epea sei hilabetekoa da, dagokion deialdian zehazten den epetik kontatzen hasita. Epe hori ebazpena espreski

jakinarazi gabe igarotakoan, pertsona edo erakunde eskatzaileek ezetsizat jo ahal izango dituzte beren dirulaguntzarako eskaerak.

Dirulaguntza ordaintzea: Behin betiko dirulaguntzaren jakinarazpena egin dela jakinarazi ondoren, ordainketa tramitatuko da. Eta kontuan izango dira, halaber, Oiertzungo Udalaren dirulaguntzei buruko Ordenantzaren VII. Tituluan aipatzen diren aspektu guztiak.

Dirulaguntza eman dela jakinarazi bezain laster, dirulaguntzaren %100a ordainduko da, eta honetarako ez zaie beste inongo bermerik eskatuko onuradunei.

24. ARTIKULUA.- Onuradunen betebeharrak

Deialdi honetako dirulaguntzak jaso dituztenek, Oiertzungo Udalaren dirulaguntzak arautzen dituen Ordenantzaren 6. artikulua ezartzen dituen betebeharrak bete beharko dituzte.

25. ARTIKULUA.- Dirulaguntza justifikatzea

Dirulaguntzagai den ikastaroaren ordainketa eta asistentzia agiriak dirulaguntza eskaerarekin batera aurkezten direnez, ez da beste justifikazio agiririk eskatuko.

26. ARTIKULUA.- Araudi osagarria

Deialdi honek ezartzen ez duenari dagokionez, aintzat hartuko da Oiertzungo Udalaren laguntzak arautzen dituen Ordenantzak ezartzen duena eta Herri Administrazioetako dirulaguntzak arautzen dituen 38/2003 Legearen xedapenak.

III. ERANSKINA: 2019an OIARTZUNGO UDALAK ARLO SOZIOEKONOMIKOAN EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO DIRULAGUNTZAK

I. ARLO SOZIOEKONOMIKOAN EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO DIRULAGUNTZAK: BALDINTZA OROKORRAK

27. ARTIKULUA.- Xedea eta helburuak.

Ebazpen honen xedea da Oiartzungo Udalaren Euskara Sailak merkatal establezimenduetan eta enpresetan euskararen erabilera sustatzeko dirulaguntzen oinarri arautzaileak ezartzea. Zehazki, hiru dirulaguntza mota arautzen ditu ebazpen honek:

- Merkatal establezimendutan eta enpresetan kanpoko errotulazioa euskaraz jartzeko dirulaguntzak.
- Enpresek euskara planak diseinatzeko eta haien jarraipena egiteko dirulaguntzak.
- Enpresa txiki eta ertainetan euskararen erabilera normalizatzeko ekintzak sustatzeko dirulaguntzak.

Dirulaguntza hauetan kontuan izango da Oiartzungo Udalaren dirulaguntzak arautzen dituen Ordenantza, 2019-2021rako dirulaguntzen Plan Estrategikoa, eta 2005eko Berdintasun Legeak 3. tituluan jasotzen duena. Honen arabera, 16, 18.4, 23. eta 24.2 artikuluetako printzipio orokorrak Euskal Autonomia Erkidegoko herri-aginte guztiei aplikatuko zaizkie baita erakunde pribatuei ere, baldin eta Erkidegoko herri aginteetako batekin kontratuak edo lankidetzak-hitzarmenak sinatzen badituzte, edo herri-aginte horiek emandako laguntzen edo dirulaguntzen onuradunak badira.

Beraz, pertsona edo elkarte onuradunak aplikatzekoa zaion indarreko araudi guztia errespetatu beharko du. Bereziki ondorengoak:

1. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legea.
2. Abenduaren 22ko 6/2003 Legearen, Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutuarena. II. Titulua kontsumitzaileen eta erabiltzaileen eskubideei buruzkoa, eta horren barruan, VII. Kapitulua, hizkuntza eskubideez ari dena.

28. ARTIKULUA.- Onuradunak eta parte-hartze baldintzak.

Oro har, dirulaguntza hauetarako aukera izan dezakete Oiartzunen kokatutako merkatal-establezimendu eta enpresek. Gainera, Udalarekiko betebeharrak (lizentziak, jarduera baimenak, zergak) egunean izan beharko dituzte.

Betekizun horietaz gain, dirulaguntza mota bakoitzarentzat zehazten diren baldintzak egiaztatu beharko dituzte.

Ezingo dute dirulaguntzarik jaso deialdi honen bidez bere izaera eta helburuak direla eta, udalaren beste arlo edo erakunde autonomo batzuen, beste programa baten edo batzuen bidez bideratu behar direnak. Dena den, dagokion erakunde edo udal arloetara bideratuko da eskaera, eta horren berri emango zaio interesatuari.

Ez zaie dirulaguntza emango ondorengo entitateei:

- Establezimenduak edo enpresak sexu-bereizkeriagatik zigor administratiboa edo penala jaso duenean.
- Establezimenduak edo enpresak bere helburuetan, onarpen-sisteman, funtzionamenduan, ibilbidean edo jardueretan emakumeen eta gizonen berdintasunaren printzipioaren aurkakoak diren edo argi eta garbi bereizkeriakoak diren kontuak edo alderdiak dituztenei.
- Ezingo dute onuradun izaera eskuratu beren baitan gizon eta emakumeen presentzia eta parte-hartzea berdintasun egoeran gauzatzea galarazten duten establezimendu edo enpresek.

II. MERKATAL ESTABLEZIMENDUTAN ETA ENPRESETAN KANPOKO ERROTULAZIOA EUSKARAZ JARTZEKO DIRULAGUNTZAK

29. ARTIKULUA.- Onuradunak eta parte-hartze baldintzak.

- 3. artikuluko baldintza orokorrak betetzea.
- Establezimendu berriei eta errotulazioa aldatu nahi duten zaharrei emango zaie.
- Errotulazioa euskaraz jartzea herriguneetan.
- Errotulazioa euskaraz edo elebitan jartzea Jarduera Ekonomikoetarako guneeetan.
- Euskarazko testua zuzen idatzita jartzea; hori egiaztatzeko Euskara Sailak gainbegiratuko du.

Ez dira diruz lagunduko kanpoko errotulazioan establezimenduaren edo enpresaren izen berezia soilik agertzen bada.

30. ARTIKULUA.- Dirulaguntzaren zenbatekoa eta gehieneko partida

2015eko martxoaren 25ean onartutako Hirigintza Plan Orokorraren E5 planoan jasotzen den kalifikazioen sailkapenaren arabera, jarduera ekonomikoen kanpoaldeko errotulazioan euskararen erabilera normalizatzeko, ondorengo laguntzak emango dira:

- Herriguneetan eta merkataritza guneeetako denda eta establezimenduetan: kanpoko errotulazioa euskara hutsean jartzeko, egindako gastuaren %50eko dirulaguntza emango da (300 euroko mugarekin).
- Herriguneetako establezimenduetan elebietan jarritako kanpoko errotulazioarentzako ez da dirulaguntzarik emango.

- Merkataritza guneetako denda eta establezimenduetan: kanpoko errotulazioa elebitan jartzeko (Euskara lehenetsiz), egindako gastuaren %35eko dirulaguntza emango da (150 euroko mugarekin).
- Jarduera Ekonomikoetarako gainerako guneetan kanpoko errotulazioa euskara hutsean jartzen den kasuetan: egindako gastuaren %50eko dirulaguntza emango da (600 euroko mugarekin).
- Jarduera Ekonomikoetarako gainerako guneetan kanpoko errotulazioa elebitan jartzen den kasuetan, bi atal bereiziko dira:
 - Kanpoko errotulazioaren kostua 601euro edo gehiagokoa bada, %50a emango zaio (300 euroko mugarekin)
 - Kanpoko errotulazioaren kostua 600euro edo gutxiagokoa bada, %35a emango zaio (300 euroko mugarekin)

Dirulaguntza hauek ordaintzeko, guztira, 7800 € euroko izendapena eginda dago, Oiartzungo Udalaren 2019 urteko aurrekontuko 1 0701.481.335.00.04 2019 zenbakidun partidaren kontura.

Zehazki, honela dago diru kopuru hau banatuta:

- 1.800 euro *Herriguneetako Komertzioetako* kanpoko errotulazioa euskaraz jartzeko dirulaguntzetara bideratua.
- 6.000 euro *Jarduera Ekonomikoetarako guneetako* enpresetako kanpoko errotulazioa euskaraz jartzeko dirulaguntzetara bideratua.

Dirulaguntzak eskaerak jaso ahala emango dira, partidaren kreditua agortu bitartean.

Baimendutako gastua handitu edo murriztu ahal izango du, aldaketaren zenbatekoaren arabera eskumena esleituta duen organoak. Horrek ez du beste deialdi bat egitea ekarriko.

31. ARTIKULUA.- Eskaerak aurkezteko lekua eta dokumentazioa

Eskaerak Udaleko Erregistro Nagusian aurkeztu behar dira Udalak horretarako jarriko dituen eskaera orrietan. Halaber, urriaren 1eko Administrazio Publikoen Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 16.4 artikulua aipatzen dituen lekuetan ere aurkeztu ahal izango dira.

Dirulaguntzaren eskaera egiteko, dokumentazio hau aurkeztu beharko dute:

- Eskabide orria, behar bezala beteta.
- Erakunde eskatzailearen, pertsona arduradunaren edo ordezkariaren NAREN fotokopia.
- Elkarte, erakunde edo interesatu eskatzailearen IFZAREN fotokopia, hala badagokio.
- Eskaera egiten duen elkarte, erakundeak edo interesatuak kontu korrante bat ireki duela egiaztatzen duen banketxearen edo aurrezki kutxaren ziurtagiria.

- Zinpeko aitorpena, Gizarte segurantzaren betebeharren, zerga betebeharren eta beste dirulaguntzen ingurukoa.
- Kanpoko errotulazioaren jatorrizko faktura edo fotokopia konpultsatua.
- Kanpoko errotulazioaren argazkia.

32. ARTIKULUA.- Akatsak zuzentzea eta dokumentazio osagarria aurkeztea

Eskaerak edo horrekin batera doan dokumentazioak ez baditu identifikazio datuak biltzen, akatsen bat badu edo zerbait falta bada, eskatzaileari eskatuko zaio 38/2003 dirulaguntzak arautzen dituen Lege Orokorrak eta Udal Ordenantza Orokorrak ezarritakoari jarraiki, hamar eguneko epean akats horiek zuzentzeko; eta adieraziko zaio ezen, hori egingo ez balu, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela, aipatu legearen 23. artikuluan aurreikusitako moduan.

33. ARTIKULUA.- Epeak

Eskaerak, dirulaguntza deialdi hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren egin ahal izango dira, 2019ko abenduaren 31 arte.

Eskaerak Oiartzungo Udaleko erregistroko dataren arabera eta iritsi ahala aztertu eta ebatziko dira partidaren kreditua agortu bitartean. Dirulaguntza ebazteko epea gehienez ere eskaera egin denetik sei hilabetekoa izango da. Erantzunik jaso ezean, isiltasuna ezezkua izango da.

34. ARTIKULUA.- Beste dirulaguntzekin bateragarritasuna

Araudi honetako dirulaguntzak bateragarriak izango dira erakunde publiko edo pribatuek xede bererako eman ditzaketen bestelako dirulaguntzekin, beti ere dirulaguntza bakoitzean zehaztutako mugak gaingitu gabe. Bateragarritasunari buruz sortu daitezkeen zalantzak argitzeko, Oiartzungo Udalaren dirulaguntzak emateko Ordenantza Orokorrak 14. artikuluan finkatzen dituen irizpideak jarraituko dira.

35. ARTIKULUA.- Emateko prozedura

Dirulaguntzak emateko prozedurak, Oiartzungo Udalaren dirulaguntzak arautzen dituen Ordenantzak IV. Tituluan (22-23 artikulua) zehazten diren pausoak jarraituko ditu, bertan azaltzen diren baldintzekin:

- o Euskara arloko teknikariak dirulaguntza eskariak ebaluatuko ditu.
- o Txostena egin eta Euskara Batzordera eramango du, honek txostena kontuan hartuta, bere iritzia eman eta behin-behineko proposamena luza dezan.
- o Alkateak Dekretuz behin-behineko proposamena onartuko du, hamar eguneko epea eskainiz interesatuei alegazioak aurkezteko. Prozeduran pertsona interesdunek argudiatutakoak beste egintzarik, alegaziorik edo frogarik agertzen

ez denean, entzunaldi-izapide hori bazter utzi ahal izango da. Kasu horretan, ebazpen-proposamena behin betikoa izango da.

- Aurkeztutako alegazioak (baleude) aztertu ondoren, behin betiko ebazpen-proposamena egingo da. Proposamen horrek dirulaguntzaren emakidarako proposatzen dituen eskatzaileen zerrenda eta zenbatekoa adierazi beharko ditu, bere ebaluazioa eta hori egiteko erabilitako balorazio-irizpideak adierazita, eta baita zer eskaera ez dituen aintzat hartu eta zer arrazoitan oinarritu den ere.

Www.oiartzun.eus web orrian behin-behineko proposamenaren eta behin betiko ebazpenaren berri emango da.

Behin betiko ebazpena egiteko eta jakinarazteko gehienezko epea sei hilabetekoa da, dagokion deialdian zehazten den epeetik kontatzen hasita. Epe hori ebazpena espreski jakinarazi gabe igarotakoan, pertsona edo erakunde eskatzaileek ezetsitzat jo ahal izango dituzte beren dirulaguntzarako eskaerak.

Dirulaguntza ordaintzea: Behin betiko dirulaguntzaren jakinarazpena egin dela jakinarazi ondoren, ordainketa tramitatuko da. Eta kontuan izango dira, halaber, Oiartzungo Udalaren dirulaguntzei buruko Ordenantzaren VII. Tituluan aipatzen diren aspektu guztiak.

Dirulaguntza eman dela jakinarazi bezain laster, dirulaguntzaren %100a ordainduko da, eta honetarako ez zaie beste inongo bermerik eskatuko onuradunei.

36. ARTIKULUA.- Onuradunen betebeharrak

- Deialdi honetako dirulaguntzak jaso dituztenek, Oiartzungo Udalaren dirulaguntzak arautzen dituen Ordenantzaren 6. artikulua ezartzen dituen betebeharrak bete beharko dituzte.
- Erakunde edo elkarte onuradunak diruz lagundutako jardueran honako parekidetasun arloko eskakizunak bete beharko ditu:
 - Diruz lagundutako jarduerari buruzko informazio, publizitate eta propaganda guztietan, lengoia eta irudi mota guztien erabilera ez sexista egingo dute, sortzen diren dokumentu eta euskarrietan.
 - Eskaera, izen-emate orri, memoria guztietan antolatzaile eta erabiltze edo onuradunen datuak sexuagatik desagregatuta jaso beharko dira.
 - Genero ikuspegia eta parekidetasun irizpideak txertatzea proiektuetan.
 - Elkarte eta erakunde guztiek, beren zuzendaritza-organoetako eta organo kolegiatuetako kide izateko pertsonak izendatzerakoan, izendatutako en artean trebakuntza, gaitasun eta prestakuntza egokia duten emakumeen eta gizonen ordezkariak orekatu izan dadila sustatu behar dute. Xede horretarako, beharrezkoak diren arauzko neurriak edo bestelakoak hartuko dituzte.

37. ARTIKULUA.- Dirulaguntza justifikatzea

Dirulaguntzagai den errotuluaren faktura eta argazkia dirulaguntza eskaerarekin batera aurkezten denez, ez da beste justifikazio agiririk eskatuko.

38. ARTIKULUA.- Araudi osagarria

Deialdi honek ezartzen ez duenari dagokionez, aintzat hartuko da Oiartzungo Udalaren laguntzak arautzen dituen Ordenantzak ezartzen duena eta Herri Administrazioetako dirulaguntzak arautzen dituen 38/2003 Legearen xedapenak.

III. ENPRESEK EUSKARA PLANAK DISEINATZEKO ETA HAIEN JARRAIPENA EGITEKO DIRULAGUNTZAK

39. ARTIKULUA.- Xedea

Oarsoaldeko udalek sustatutako OLA planaren baitan, euskara plana martxan duten enpresetako normalizazio ekintzak eta planak gauzatzeko aholkularitza zerbitzuen gastuak diruz laguntzea.

40. ARTIKULUA.- Dirulaguntzaren zenbatekoa

Guztira, udalak emandako dirulaguntzak eta beste administrazioetatik jasotakoak ez du gastu osoaren %60a gaindituko.

Xede honetarako, aurrekontuan onartutako diru partidaren % 50a, Euskara Planaren urteko balorazioan gutxienez 50 puntu lortu dituzten enpresen artean banatuko da (diru partidaren erdia zati gutxienez 50 puntu lortu dituzten enpresen kopurua).

Xede honetarako, aurrekontuan onartutako diru partidaren gainerako % 50a enpresa bakoitzak euskara planerako egin duen gastuaren proportzioaren baitan banatuko da.

Dirulaguntza hauek emateko, guztira, 13.000 euroko izendapena eginda dago, Oiartzungo Udalak 2019 ekitaldirako indarrean duen aurrekontuko 1 0701.481.335.00.04 2019 partidaren kontura.

Baimendutako gastua handitu edo murriztu ahal izango du aldaketaren zenbatekoaren arabera eskumena esleituta duen organoak. Horrek ez du beste deialdi bat egitea ekarriko.

41. ARTIKULUA.- Onuradunak eta betebeharreko baldintzak

– 3. artikuluko baldintza orokorrak betetzea.

- Euskara planaren urteko balorazioa (ekintzena eta ekonomikoa) udalak prestatutako ereduaren baitan egitea.
- Euskara Plana diseinatu eta jarraipena egiteko planetarako dirulaguntza deialdira aurkezten diren enpresek ezingo dute arlo sozioekonomikorako aurreikusiak dauden beste dirulaguntzetara aurkeztu: Kanpoko errotulazioa euskaraz jartzeko dirulaguntza eta LANIN egitasmoko kide diren enpresei eskaintzen zaien dirulaguntzetara, alegia.
- Eusko Jaurlaritzaren LANHITZ programaren deialdian dirulaguntza eskatzea. Entitate pribatuek EAEn dituzten lantokietan euskararen erabilera eta presentzia areagotzeko dirulaguntzen deialdia, alegia.

42. ARTIKULUA.- Eskaerak aurkezteko dokumentazioa eta lekua

Eskaerak Udaleko Erregistro Nagusian aurkeztu behar dira Udalak horretarako jarriko dituen eskaera orrietan. Halaber, urriaren 1eko Administrazio Publikoen Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 16.4 artikulua aipatzen dituen lekuetan ere aurkeztu ahal izango dira.

Dirulaguntzaren eskaera egiteko, dokumentazio hau aurkeztu beharko dute:

- Eskabide orria, behar bezala beteta.
- Erakunde eskatzailearen, pertsona arduradunaren edo ordezkariaren NAren fotokopia.
- Elkartea, erakunde edo interesatu eskatzailearen IFZaren fotokopia, hala badagokio.
- Eskaera egiten duen elkarte, erakundeak edo interesatuak kontu korrante bat ireki duela egiaztatzen duen banketxearen edo aurrezki kutxaren ziurtagiria.
- Zinpeko aitortpena, Gizarte segurantzaren betebeharren, zerga betebeharren eta beste dirulaguntzen ingurukoa.
- Euskara planaren urteko balorazioa (ekintzena eta ekonomikoa) udalak prestatutako ereduaren baitan beteta.
- Egindako normalizazio ekintzen ezaugarrien arabera hala badagokio, jatorrizko fakturak edo fotokopia konpultsatuak eta argazkiak.

43. ARTIKULUA.- Akatsak zuzentzea eta dokumentazio osagarria aurkeztea

Eskaerak edo horrekin batera doan dokumentazioak ez baditu identifikazio datuak biltzen, akatsen bat bada edo zerbait falta bada, eskatzaileari eskatuko zaio 38/2003 dirulaguntzak arautzen dituen Lege Orokorrak eta Udal Ordenantza Orokorrak ezarritakoari jarraiki, hamar eguneko epean akats horiek zuzentzeko; eta adieraziko zaio ezen, hori egingo ez balu, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela, aipatu legearen 23. artikuluan aurreikusitako moduan.

44. ARTIKULUA.- Epeak

Eskaerak, dirulaguntza deialdi hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren egin ahal izango dira, 2019ko urriaren 29a arte (azken hau barne).

Eskaera guztiak batera ebatziko dira. Dirulaguntza ebatzeko epea gehienez ere eskaera egin denetik sei hilabetekoa izango da. Erantzunik jaso ezean, isiltasuna ezezkoa izango da.

45. ARTIKULUA.- Beste dirulaguntzekin bateragarritasuna

Araudi honetako dirulaguntzak bateragarriak izango dira erakunde publiko edo pribatuek xede bererako eman ditzaketen bestelako dirulaguntzekin, beti ere dirulaguntza bakoitzean zehaztutako mugak gainditu gabe. Bateragarritasunari buruz sortu daitezkeen zalantzak argitzeko, Oiartzungo Udalaren dirulaguntzak emateko Ordenantza Orokorrak 14. artikuluan finkatzen dituen irizpideak jarraituko dira.

46. ARTIKULUA.- Emateko prozedura

Dirulaguntzak emateko prozedurak, Oiartzungo Udalaren dirulaguntzak arautzen dituen Ordenantzak IV. Tituluan (22-23 artikulua) zehazten diren pausoak jarraituko ditu, bertan azaltzen diren baldintzekin:

- Euskara arloko teknikariak dirulaguntza eskariak ebaluatuko ditu.
- Txostena egin eta Euskara Batzordera eramango du, honek txostena kontuan hartuta, bere iritzia eman eta behin-behineko proposamena luza dezan.
- Tokiko Gobernu Batzarrak behin-behineko proposamena onartuko du, hamar eguneko epea eskainiz interesatuei alegazioak aurkezteko. Prozeduran pertsona interesdunek argudiatutakoak beste egintzarik, alegaziorik edo frogarik agertzen ez denean, entzunaldi-izapide hori bazter utzi ahal izango da. Kasu horretan, ebazpen-proposamena behin betikoa izango da.
- Aurkeztutako alegazioak (baleude) aztertu ondoren, behin betiko ebazpen-proposamena egingo da. Proposamen horrek dirulaguntzaren emakidarako proposatzen dituen eskatzaileen zerrenda eta zenbatekoa adierazi beharko ditu, bere ebaluazioa eta hori egiteko erabilitako balorazio-irizpideak adierazita, eta baita zer eskaera ez dituen aintzat hartu eta zer arrazoitan oinarritu den ere.

Www.oiartzun.eus web orrian behin-behineko proposamenaren eta behin betiko ebazpenaren berri emango da.

Behin betiko ebazpena egiteko eta jakinarazteko gehienezko epea sei hilabetekoa da, dagokion deialdian zehazten den epetik kontatzen hasita. Epe hori ebazpena espreski jakinarazi gabe igarotakoan, pertsona edo erakunde eskatzaileek ezetsitatz jo ahal izango dituzte beren dirulaguntzarako eskaerak.

Dirulaguntza ordaintzea: Behin betiko dirulaguntzaren jakinarazpena egin dela jakinarazi ondoren, ordainketa tramitatuko da. Eta kontuan izango dira, halaber,

Oiartzungo Udalaren dirulaguntzei buruko Ordenantzaren VII. Tituluan aipatzen diren aspektu guztiak.

Dirulaguntza eman dela jakinarazi bezain laster, dirulaguntzaren %100a ordainduko da, eta honetarako ez zaie beste inongo bermerik eskatuko onuradunei.

47. ARTIKULUA.- Onuradunen betebeharrak

- Deialdi honetako dirulaguntzak jaso dituztenek, Oiartzungo Udalaren dirulaguntzak arautzen dituen Ordenantzaren 6. artikulua ezartzen dituen betebeharrak bete beharko dituzte.
- Erakunde edo elkarte onuradunak diruz lagundutako jardueran honako parekidetasun arloko eskakizunak bete beharko ditu:
 - Diruz lagundutako jarduerari buruzko informazio, publizitate eta propaganda guztietan, lengoia eta irudi mota guztien erabilera ez sexista egingo dute, sortzen diren dokumentu eta euskarrietan.
 - Eskaera, izen-emate orri, memoria guztietan antolatzaile eta erabiltze edo onuradunen datuak sexuagatik desagregatuta jaso beharko dira.
 - Genero ikuspegia eta parekidetasun irizpideak txertatzea proiektuetan.
 - Elkarte eta erakunde guztiek, beren zuzendaritza-organoetako eta organo kolegiatuetako kide izateko pertsonak izendatzerakoan, izendatutakoan artean trebakuntza, gaitasun eta prestakuntza egokia duten emakumeen eta gizonen ordezkariak orekatu izan dadila sustatu behar dute. Xede horretarako, beharrezkoak diren arauzko neurriak edo bestelakoak hartuko dituzte.

48. ARTIKULUA.- Dirulaguntza justifikatzea

Dirulaguntzagai den jardueraren faktura eta ziurtagiriak dirulaguntza eskaerarekin batera aurkezten direnez, ez da beste justifikazio agiririk eskatuko.

49. ARTIKULUA.- Araudi osagarria

Deialdi honek ezartzen ez duenari dagokionez, aintzat hartuko da Oiartzungo Udalaren laguntzak arautzen dituen Ordenantzak ezartzen duena eta Herri Administrazioetako dirulaguntzak arautzen dituen 38/2003 Legearen xedapenak.

IV. ENPRESA TXIKI ETA ERTAINETAN EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO EKINTZAK SUSTATZEKO DIRULAGUNTZAK

50. ARTIKULUA.- Xedea

Oiartzungo Udalak sustatutako Enpresa txiki eta ertainetan euskararen erabilera

sustatzeko LANIN egitasmoaren baitan, hitzarmen proposamena onartu duten enpresei, bakoitzak burututako normalizazio ekintzen baitako gastuak diruz laguntzea.

51. ARTIKULUA.- Dirulaguntzaren zenbatekoa

- Guztira, udalak emandako dirulaguntzak eta beste administrazioetatik jasotakoak ez du gastu osoaren %60a gaindituko.
- Enpresan euskararen erabilera sustatzeko urtean zehar egindako gastuen %50a ordainduko zaio eskatzaileari.
- Urtero, gehienez 600 euroko dirulaguntza jaso ahal izango da.
- Laguntza honetatik kanpo geratzen da “kanpoko errotulazioa euskaraz jartzeko dirulaguntza” (dirulaguntza lerro propioa du jarduera honek). Beraz, LANIN egitasmoko hitzarmena duen enpresa batek eskatu dezake kanpoko errotulazioa euskaraz jartzeko dirulaguntza.

Dirulaguntza hauek emateko, guztira, 8.000,00 euroko izendapena eginda dago, Oiartzungo Udalak 2019 ekitaldirako indarrean duen aurrekontuko 1 0701.481.335.00.04 2019 partidaren kontura.

Baimendutako gastua handitu edo murriztu ahal izango du aldaketaren zenbatekoaren arabera eskumena esleituta duen organoak. Horrek ez du beste deialdi bat egitea ekarriko.

52. ARTIKULUA.- Onuradunak eta betebeharreko baldintzak

- 3. artikuluko baldintza orokorrak betetzea.
- LANIN egitasmoaren baitako hitzarmena sinatua izatea Oiartzungo Udalarekin.

53. ARTIKULUA.- Aurkeztu beharreko dokumentazioa

Eskaerak Udaleko Erregistro Nagusian aurkeztu behar dira Udalak horretarako jarriko dituen eskaera orrietan. Halaber, urriaren 1eko Administrazio Publikoen Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 16.4 artikulua aipatzen dituen lekuetan ere aurkeztu ahal izango dira.

Dirulaguntzaren eskaera egiteko, dokumentazio hau aurkeztu beharko dute:

- Eskabide orria, behar bezala beteta.
- Erakunde eskatzailearen, pertsona arduradunaren edo ordezkariaren NAREN fotokopia.
- Elkartea, erakunde edo interesatu eskatzailearen IFZAREN fotokopia, hala badagokio.
- Eskaera egiten duen elkarte, erakundeak edo interesatuak kontu korrante bat ireki duela egiaztatzen duen banketxearen edo aurrezki kutxaren ziurtagiria.
- Zinpeko aitortpena, Gizarte segurantzaren betebeharren, zerga betebeharren eta beste dirulaguntzen ingurukoa.

- Egindako normalizazio ekintzen ezaugarrien arabera hala badagokio, jatorrizko fakturak edo fotokopia konpultsatuak eta argazkiak.

54. ARTIKULUA.- Akatsak zuzentzea eta dokumentazio osagarria aurkeztea

Eskaerak edo horrekin batera doan dokumentazioak ez baditu identifikazio datuak biltzen, akatsen bat badu edo zerbait falta bada, eskatzaileari eskatuko zaio 38/2003 dirulaguntzak arautzen dituen Lege Orokorrak eta Udal Ordenantza Orokorrak ezarritakoari jarraiki, hamar eguneko epean akats horiek zuzentzeko; eta adieraziko zaio ezen, hori egingo ez balu, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela, aipatu legearen 23. artikuluan aurreikusitako moduan.

55. ARTIKULUA.- Epeak

Eskaerak, dirulaguntza deialdi hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren egin ahal izango dira: 2019ko abenduaren 31 arte.

Eskaerak Oiartzungo Udaleko erregistroko dataren arabera eta iritsi ahala aztertu eta ebatziko dira partidaren kreditua agortu bitartean. Dirulaguntza ebatzeko epea gehienez ere eskaera egin denetik sei hilabetekoa izango da. Erantzunik jaso ezean, isiltasuna ezezkoa izango da.

56. ARTIKULUA.- Beste dirulaguntzekin bateragarritasuna

Araudi honetako dirulaguntzak bateragarriak izango dira erakunde publiko edo pribatuek xede bererako eman ditzaketan bestelako dirulaguntzekin, beti ere dirulaguntza bakoitzean zehaztutako mugak gainditu gabe. Bateragarritasunari buruz sortu daitezkeen zalantzak argitzeko, Oiartzungo Udalaren dirulaguntzak emateko Ordenantza Orokorrak 14. artikuluan finkatzen dituen irizpideak jarraituko dira.

57. ARTIKULUA.- Emateko prozedura

Dirulaguntzak emateko prozedurak, Oiartzungo Udalaren dirulaguntzak arautzen dituen Ordenantzak IV. Tituluan (22-23 artikulua) zehazten diren pausoak jarraituko ditu, bertan azaltzen diren baldintzekin:

- o Euskara arloko teknikariak dirulaguntza eskariak ebaluatuko ditu.
- o Txostena egin eta Euskara Batzordera eramango du, honek txostena kontuan hartuta, bere iritzia eman eta behin-behineko proposamena luza dezan.
- o Alkateak Dekretuz behin-behineko proposamena onartuko du, hamar eguneko epea eskainiz interesatuei alegazioak aurkezteko. Prozeduran pertsona interesdunek argudiatutakoak beste egintzarik, alegaziorik edo frogarik agertzen ez denean, entzunaldi-izapide hori bazter utzi ahal izango da. Kasu horretan, ebazpen-proposamena behin betikoa izango da.

- Aurkeztutako alegazioak (baleude) aztertu ondoren, behin betiko ebazpen-proposamena egingo da. Proposamen horrek dirulaguntzaren emakidarako proposatzen dituen eskatzaileen zerrenda eta zenbatekoa adierazi beharko ditu, bere ebaluazioa eta hori egiteko erabilitako balorazio-irizpideak adierazita, eta baita zer eskaera ez dituen aintzat hartu eta zer arrazoitan oinarritu den ere.

Www.oiartzun.eus web orrian behin-behineko proposamenaren eta behin betiko ebazpenaren berri emango da.

Behin betiko ebazpena egiteko eta jakinarazteko gehienezko epea sei hilabetekoa da, dagokion deialdian zehazten den epekin kontaktatzen hasita. Epe hori ebazpena espreski jakinarazi gabe igarotakoan, pertsona edo erakunde eskatzaileek ezetsitatzat jo ahal izango dituzte beren dirulaguntzarako eskaerak.

Dirulaguntza ordaintzea: Behin betiko dirulaguntzaren jakinarazpena egin dela jakinarazi ondoren, ordainketa tramitatuko da. Eta kontuan izango dira, halaber, Oiartzungo Udalaren dirulaguntzei buruko Ordenantzaren VII. Tituluan aipatzen diren aspektu guztiak.

Dirulaguntza eman dela jakinarazi bezain laster, dirulaguntzaren %100a ordainduko da, eta honetarako ez zaie beste inongo bermerik eskatuko onuradunei.

58. ARTIKULUA.- Onuradunen betebeharrak

- Deialdi honetako dirulaguntzak jaso dituztenek, Oiartzungo Udalaren dirulaguntzak arautzen dituen Ordenantzaren 6. artikulua ezartzen dituen betebeharrak bete beharko dituzte.
- Erakunde edo elkarte onuradunak diruz lagundutako jardueran honako parekidetasun arloko eskakizunak bete beharko ditu:
 - Diruz lagundutako jarduerari buruzko informazio, publizitate eta propaganda guztietan, lengoia eta irudi mota guztien erabilera ez sexista egingo dute, sortzen diren dokumentu eta euskarrietan.
 - Eskaera, izen-emate orri, memoria guztietan antolatzaile eta erabiltze edo onuradunen datuak sexuagatik desagregatuta jaso beharko dira.
 - Genero ikuspegia eta parekidetasun irizpideak txertatzea proiektuetan.
 - Elkarte eta erakunde guztiek, beren zuzendaritza-organoetako eta organo kolegiatuetako kide izateko pertsonak izendatzerakoan, izendatutako en artean trebakuntza, gaitasun eta prestakuntza egokia duten emakumeen eta gizonen ordezkariak orekatua izan dadila sustatu behar dute. Xede horretarako, beharrezkoak diren arauzko neurriak edo bestelakoak hartuko dituzte.

59. ARTIKULUA.- Dirulaguntza justifikatzea

Dirulaguntzagai den ekintzaren faktura eta argazkia dirulaguntza eskaerarekin batera aurkezten denez, ez da beste justifikazio agiririk eskatuko.

60. ARTIKULUA.- Araudi osagarria

Deialdi honek ezartzen ez duenari dagokionez, aintzat hartuko da Oiartzungo Udalaren laguntzak arautzen dituen Ordenantzak ezartzen duena eta Herri Administrazioetako dirulaguntzak arautzen dituen 38/2003 Legearen xedapenak.

IV. ERANSKINA: 2019an UDALERRIAZ GAINDIKO EREMUEAN EUSKARA SUSTATZEN DABILTZAN ERAKUNDEENTZAKO DIRULAGUNTZAK

61. ARTIKULUA.- Xedea eta helburuak.

Ebazpen honen xedea hauxe da: 2019an zehar, udalerriaz gaindiko eremuetan euskara sustatzen dabiltzan erakundeei, dirulaguntzak norgehiagoka prozeduraren bidez banatzeko, Oiartzungo Udalaren dirulaguntzen oinarri arautzaileak ezartzea.

Dirulaguntza hauetan kontuan izango da Oiartzungo Udalaren dirulaguntzak arautzen dituen Ordenantza, 2019-2021rako dirulaguntzen Plan Estrategikoa, eta 2005eko Berdintasun Legeak 3. tituluan jasotzen duena. Honen arabera, 16, 18.4, 23. eta 24.2 artikuluetako printzipio orokorrak Euskal Autonomia Erkidegoko herri-aginte guztiei aplikatuko zaizkie baita erakunde pribatuei ere, baldin eta Erkidegoko herri aginteetako batekin kontratuak edo lankidetzaz hitzarmenak sinatzen badituzte, edo herri-aginte horiek emandako laguntzen edo dirulaguntzen onuradunak badira.

Beraz, pertsona edo elkarte onuradunak aplikatzekoa zaion indarreko araudi guztia errespetatu beharko du; eta bereziki Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legea.

62. ARTIKULUA.- Onuradunak eta parte-hartze baldintzak.

Oro har, dirulaguntza hauetarako aukera izan dezakete udalerriaz gaindiko eremuetan euskara sustatzen dabiltzan erakundeek edo elkarteek, Oiartzungo Udalaren dirulaguntzak emateko Ordenantza Orokorrak ezartzen duen moduan.

Diruz laguntzen diren ekintzak irekiak izango dira, herritarren artean inolako bereizketarik egin gabe.

Ezingo dute dirulaguntzarik jaso deialdi honen bidez bere izaera eta helburuak direla eta, udalaren beste arlo edo erakunde autonomo batzuen, beste programa baten edo batzuen bidez bideratu behar direnak. Dena den, dagokion erakunde edo udal arloetara bideratuko da eskaera, eta horren berri emango zaio interesatuari.

Ez zaie dirulaguntza emango ondorengo entitateei:

- Elkarteak sexu-bereizkeriagatik zigor administratiboa edo penala jaso duenean.
- Erakundeak edo entitateak bere helburuetan, onarpen-sisteman, funtzionamenduan, ibilbidean edo jardueretan emakumeen eta gizonen berdintasunaren printzipioaren aurkakoak diren edo argi eta garbi bereizkeriakoak diren kontuak edo alderdiak dituztenei.

- Ezingo dute onuradun izaera eskuratu beren baitan gizon eta emakumeen presentzia eta parte-hartzea berdintasun egoeran gauzatzea galarazten duten elkarteek, salbu eta, sexu bakarreko kideek osatutako elkarteak izanik, helburu nagusia gizon eta emakumeen arteko berdintasuna lortzea edo emakumezkoen nahiz gizonezkoen berariazko interes eta beharrak sustatzea dutelarik.

Erakunde onuradunak udalarekin dituen ahozko zein idatzizko harremanak euskaraz izango dira.

Erakunde onuradunak diruz lagundutako jardueran argitaratzen diren idatzi, iragarki, ohar eta gainerako komunikazioak orokorrean euskaraz ezagutarazi beharko ditu, eta publizitatearekin ere, ahozko zein idatzia izan, berdin jokatu du.

63. ARTIKULUA.- Diruz lagunduko ez diren gastuak.

Ez da dirulaguntzarik emango honelako gastuetarako:

- Eskabidea egiten duen entitateko bazkideentzat bakarrik diren ekitaldietarako.
- Udal sail beraren edo beste udal sail baten berariazko eskumenekoak diren eta horien laguntza edo hitzarmen baten barruan sartzen diren ekitaldiak.

64. ARTIKULUA.- Dirulaguntzaren kontzeptuak eta irizpideak. Zenbatekoa.

Dirulaguntzak emateko irizpideak. Puntuazio sistema:

- Urteko egitasmo guztiei emateko dagoen diru-kopuru guztia eta ebaluazioaren arabera erakundeek lortutako puntu guztien zatiketa egin eta eragiketa horrek puntu baten balore ekonomikoa emango du.
- Puntu batetik ateratzen den balore ekonomikoa bider erakundeek lortzen dituzten puntuek zehaztuko dute eman beharreko dirulaguntzaren kopurua.
- Baloraziorako adierazleen datuak EUSTATetik, Nafarroako Estatistika Erakundetik eta Gaindegiatik lortuko dira. Dirulaguntza ematen den urtean argitaratuta dauden azken datuak erabiliko dira baloraziorako.
- Baloraziorako adierazleak eta horien puntuazioa honako hauek dira:

a) Erakundearen eragin eremuko (herrialdeko/herrialde multzoko) egoera soziolinguistikoa

Biztanleriaren artean dauden euskaldunen (Euskaldunak + Ia euskaldunak / 2) ehunekoak.

- % 0-30,9 100 puntu

- %31-40,9 50 puntu
- %41-60,9 20 puntu
- %61-70,9 10 puntu
- %71-100 5 puntu

b) Dagokion eremu administratiboko hizkuntzaren normalizaziorako legediaren garapena

- Ez dago legediarik 100 puntu
- Legedia partziala dago 50 puntu
- Legedia badago 0 puntu

c) Eskatzailea herri ekimeneko edo administrazioaren baitako erakundea den:

- Herri ekimenekoa 50 puntu
- Administrazioaren baitakoa 15 puntu

Irizpide hauekin eskaera bakoitza baloratu ondoren, dagokion diru partidari gordetako dirua onartutako eskaera guztien artean proportzionalki banatuko da.

Aurrekontua

Udalak urtero zehaztuko du banatuko den dirulaguntzaren zenbatekoa. Onartutako eskaera bakoitzari ordenantza honetako ondorengo puntuazio sistemaren bidez lortutako puntuen baitako dirulaguntza emango zaio.

Dirulaguntza hauek ordaintzeko, guztira, 3.040,00 euroko izendapena eginda dago, Oiarzungo Udalaren 2019 urteko aurrekontuko 1 0701.481.335.00.01 (3132) zenbakidun partidaren kontura.

Baimendutako gastua handitu edo murriztu ahal izango du aldatetaren zenbatekoaren arabera eskumena esleituta duen organoak. Horrek ez du beste deialdi bat egitea ekarriko.

Gehieneko dirulaguntza eta aldatetak

Oinarri hauetan araututako dirulaguntzen zenbatekoak ezin du inola ere gainditu diruz lagundutako jardueraren kostua, ez berak bakarrik, ez beste dirulaguntza, bestelako laguntza, sarrera edo baliabide batzuekin batera.

Dirulaguntza emateko kontuan hartu diren baldintzetan edozein aldateta gertatuz gero, eta nolana ere, oinarri hauetan baimendutako kasuez kanpo dirulaguntza hauekin batera laguntzak jasoz gero, gerta daiteke dirulaguntza emateari buruzko ebazpena aldatzea.

65. ARTIKULUA.- Eskaerak aurkezteko lekua eta dokumentazioa

Eskaerak Udaleko Erregistro Nagusian aurkeztu behar dira Udalak horretarako jarriko dituen eskaera orrietan. Halaber, urriaren 1eko Administrazio Publikoen Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 16.4 artikulua aipatzen dituen lekuetan ere aurkeztu ahal izango dira.

Dirulaguntzaren eskaera egiteko, dokumentazio hau aurkeztu beharko dute:

- Eskaera orri orokorra.
- Erakunde eskatzailearen, pertsona arduradunaren edo ordezkariaren NAren fotokopia.
- Elkarte, erakunde edo interesatu eskatzailearen IFZaren fotokopia, hala badagokio.
- Eskaera egiten duen elkarte, erakundeak edo interesatuak kontu korrante bat ireki duela egiaztatzen duen banketxearen edo aurrezki kutxaren ziurtagiria.
- Proiektuaren, jardueraren edo programaren txostena.
- Programaren gastuen eta sarreraren aurrekontua
- Zinpeko aitortpena, Gizarte segurantzaren betebeharren, zerga betebeharren eta beste dirulaguntzen ingurukoa.

66. ARTIKULUA.- Akatsak zuzentzea eta dokumentazio osagarria aurkeztea

Eskaerak edo horrekin batera doan dokumentazioak ez baditu identifikazio datuak biltzen, akatsen bat badu edo zerbait falta bada, eskatzaileari eskatuko zaio 38/2003 dirulaguntzak arautzen dituen Lege Orokorrak eta Udal Ordenantza Orokorrak ezarritakoari jarraiki, hamar eguneko epean akats horiek zuzentzeko; eta adieraziko zaio ezen, hori egingo ez balu, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela, aipatu legearen 23. artikuluan aurreikusitako moduan.

67. ARTIKULUA.- Epeak

Eskaerak, dirulaguntza deialdi hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren, irailaren 30a baino lehen egin ahal izango dira.

Aurkeztutako dokumentazioa osatu gabe badago edo oinarrietako baldintzaren bat betetzen ez badu, hamar egun balioduneko epea emango zaio interesdunari akatsak zuzendu ditzan edo dagokion dokumentazioa gehitu dezan, Oiartzungo Udalaren dirulaguntzak emateko Ordenantza orokorrak 20. artikuluan aipatzen duena jarraituz.

68. ARTIKULUA.- Beste dirulaguntzekin bateragarritasuna

Araudi honetako dirulaguntzak bateragarriak izango dira erakunde publiko edo pribatuek xede bererako eman ditzaketan bestelako dirulaguntzekin. Bateragarritasunari buruz sortu daitezkeen zalantzak argitzeko, Oiartzungo Udalaren dirulaguntzak emateko Ordenantza Orokorrak 14. artikuluan finkatzen dituen irizpideak jarraituko dira.

69. ARTIKULUA.- Emateko prozedura

Dirulaguntzak emateko prozedurak, Oiartzungo Udalaren dirulaguntzak arautzen dituen Ordenantzak IV. Tituluan (22-23 artikulua) zehazten diren pausoak jarraituko ditu, bertan azaltzen diren baldintzekin:

- Euskara arloko teknikariak dirulaguntza eskariak ebaluatuko ditu.
- Txostena egin eta Euskara Batzordera eramango du, honek txostena kontuan hartuta, bere iritzia eman eta behin-behineko proposamena luza dezan.
- Alkateak Dekretuz behin-behineko proposamena onartuko du, hamar eguneko epea eskainiz interesatuei alegazioak aurkezteko. Prozeduran pertsona interesdunek argudiatutakoak beste egintzarik, alegaziorik edo frogarik agertzen ez denean, entzunaldi-izapide hori bazter utzi ahal izango da. Kasu horretan, ebazpen-proposamena behin betikoa izango da.
- Aurkeztutako alegazioak (baleude) aztertu ondoren, behin betiko ebazpen-proposamena egingo da. Proposamen horrek dirulaguntzaren emakidarako proposatzen dituen eskatzaileen zerrenda eta zenbatekoa adierazi beharko ditu, bere ebaluazioa eta hori egiteko erabilitako balorazio-irizpideak adierazita, eta baita zer eskaera ez dituen aintzat hartu eta zer arrazoitan oinarritu den ere.

Www.oiartzun.eus web orrian behin-behineko proposamenaren eta behin betiko ebazpenaren berri emango da.

Behin betiko ebazpena egiteko eta jakinarazteko gehienezko epea sei hilabetekoa da, dagokion deialdian zehazten den epetik kontatzen hasita. Epe hori ebazpena espreski jakinarazi gabe igarotakoan, pertsona edo erakunde eskatzaileek ezetsizat jo ahal izango dituzte beren dirulaguntzarako eskaerak.

Dirulaguntza ordaintzea: Behin betiko dirulaguntzaren jakinarazpena egin dela jakinarazi ondoren, ordainketa tramitatuko da. Eta kontuan izango dira, halaber, Oiartzungo Udalaren dirulaguntzei buruko Ordenantzaren VII. Tituluan aipatzen diren aspektu guztiak.

Dirulaguntza eman dela jakinarazi bezain laster, dirulaguntzaren %100a ordainduko da, eta honetarako ez zaie inongo bermerik eskatuko onuradunei.

70. ARTIKULUA.- Onuradunen betebeharrak

- Deialdi honetako dirulaguntzak jaso dituztenek, Oiartzungo Udalaren dirulaguntzak arautzen dituen Ordenantzaren 6. artikulua ezartzen dituen betebeharrak bete beharko dituzte.
- Erakunde edo elkarte onuradunak diruz lagundutako jardueran honako parekidetasun arloko eskakizunak bete beharko ditu:
 - Diruz lagundutako jarduerari buruzko informazio, publizitate eta propaganda guztietan, lengoaia eta irudi mota guztien erabilera ez sexista egingo dute, sortzen diren dokumentu eta euskarrietan.

- Eskaera, izen-emate orri, memoria guztietan antolatzaile eta erabiltze edo onuradunen datuak sexuagatik desagregatuta jaso beharko dira.
- Genero ikuspegia eta parekidetasun irizpideak txertatzea proiektuetan.
- Elkarte eta erakunde guztiek, beren zuzendaritza-organoetako eta organo kolegiatuetako kide izateko pertsonak izendatzerakoan, izendatutakoen artean trebakuntza, gaitasun eta prestakuntza egokia duten emakumeen eta gizonen ordezkariak orekatua izan dadila sustatu behar dute. Xede horretarako, beharrezkoak diren arauzko neurriak edo bestelakoak hartuko dituzte.

71. ARTIKULUA.- Dirulaguntza justifikatzea

Dirulaguntza justifikatzeko, entitate edo pertsona onuradunak egindako eta diruz lagundutako jardueraren azalpen memoria aurkeztuko du, ekintzaren gastu eta diru sarreren balantze xehea barne.

Ekintzak egin ahal justifikatu ahal izango dira, gehienez ekintza bukatu denetik hiru hilabeteko epean beti ere, hurrengo urteko urtarrilaren 31a baino lehen.

72. ARTIKULUA.- Dirulaguntza itzultzea

Deialdi honetako 71. artikulua ezartzen duena betez, dirulaguntza eman deneko jardueraren gastuaren aurrekontuari dagokion gastua justifikatzen ez bada, dirulaguntza osoa edo zati bat eta dagokion berandutze-interesa itzuli beharko da, Oiartzungo Udalaren dirulaguntzak arautzen dituen Ordenantzaren IX. Tituluak arautzen duen prozedura jarraituz.

73. ARTIKULUA.- Araudi osagarria

Deialdi honek ezartzen ez duenari dagokionez, aintzat hartuko da Oiartzungo Udalaren laguntzak arautzen dituen Ordenantzak ezartzen duena eta Herri Administrazioetako dirulaguntzak arautzen dituen 38/2003 Legearen xedapenak.

I. ERANSKINA Zinpeko aitortpena

Eskatzaileak hau aitortzen du:

- Ez dagoela sartuta dirulaguntza publikoak itzularazteko edo zigortzeko inongo prozeduratan.
- Onuraduna, Gizarte Segurantzarekiko betebeharretan eta Foru Ogasuneko Betebeharretan eguneratuta dagoela.
- Elkarreak, kideak aukeratzekoan edo jardunean ez duela inor deusengatik baztertzen.
- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 3.1 eta 24.2 artikuluetan ezarritakoaren arabera, elkarreak:
 - Ez duela urratzen emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasunaren printzipioa honakoei dagokionez: helburuak, kideak onartzeko edo sartzeko sistema, funtzionamendua, ibilbidea, jarduna, antolamendua eta/edo estatutueta.
 - Ez duela Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen ondoriozko debekurik.
 - Ez duela sexu-bereizkeria egiteagatik administrazio-zehapenik eta/edo zehapen penalik.
 - Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean edo Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eraginkorrerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan ezarritako betekizunak betetzen direla.
 - Onarpen-prozesuan edo funtzionamenduan ez duela sexuagatiko bereizkeria egiten.
- Laguntza eskabide honez gain ez duela helburu bererako beste laguntzarik eskatu edo jaso, beste inongo erakunde publiko nahiz pribatuk emana.

EDO

- Laguntza eskabide honez gain helburu bererako beste laguntzak jaso edo eskatu dituela, beheko erakunde hauei:

Erakundea	Zenbatekoa	Egoera (Ebatzi gabe, ebatzita baina kobratu gabe edo kobratua)

- Helburu bererako edozein erakunde publiko nahiz pribatari dirulaguntza eskabiderik eginez gero, Oiarzungo Udalari jakinarazteko konpromisoa hartzen duela bere gain.

Eta, hala ager dadin, izenpetu egiten du.

(Data eta sinadura)